

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2021eko azaroaren 4an aurkeztuko du

Sharon Lockhart: *Errotazioa notazioa*

Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

- Datak: 2021eko azaroaren 4tik 2022ko otsailaren 27ra
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2021eko azaroaren 4tik 2022ko otsailaren 27ra, Guggenheim Bilbao Museoa *Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa* izango du ikusgai, 2021ean Film & Video aretoan egingo den hirugarren eta azken erakusketa. Areto horretan, hainbat diziplinako funtsezko piezak jartzen ditu erakusgai Museoak: bideo-arteak, ikus-entzunezko instalazioak zein mugimendudun irudia arte-hizkuntza gisa darabilten lanak.

Oraingoan, Sharon Lockhart (1964, Norwood, AEB) artistaren bideo-instalazio bat eta zenbait argazki egongo dira ikusgai, Noa Eshkol (Kibbutz Degania Bet, 1924–Holon, Israel, 2007) koreografo israeldarra hil eta gutxira Lockhartek haren lanak ezagutu zituen garaian oinarritutakoak. Aurkikuntza horren ondorioz, Lockhart giza mugimendua formalki aztertzen hasi zen, eta bere lanaren lankidetzaren dimentsioa ere areagotu zuen, Eshkolaren moduko praktika polifazetikoan murgildu baitzen; hala, praktika horren interpretazioa kolektibotasunaren menpe dago hein batean.

Sharon Lockhart lanak arreta berezia jartzen du giza jardueran eta hura antolatze moduan, nola sozialki hala indibidualki. Haren filmek lana, kirola, haur-jolasak zein koreografia bezalako arloak dituzte aztergai, eta itxuraz sinpleak diren mugimenduen konplexutasunari eta sakontasun poetikoari heltzen diete bereziki. Haren obrak soilak eta aitzakiarik gabekoak dira; behaketa-ariketak, non dokumentatze hutsak argi uzten duen mundua egon badagoela. Lentea geldirik uzteak agerian jartzen du gaur egun objektibotasun teknikoaren lortzeko asmoa dagoela; hala, badirudi erakusten diren egoerak beren burua filmatzen ari direla.

Lockhartek autogogoeta meditatiborantz eramaten du zinemaren mekanika; testuinguru horretan, interpreteak —aktoreak, norbanakoak eta gorputzak— presentziaren, keinuaren eta harremanaren eramaile zehatz gisa ageri dira. Artistak ikergai izaten ditu objektibotasuna eta kameraren bitartez errealtate bisualaz 24 fotograma segundoko abiaduran egiten den erreproduktzio automatizatua, eta horrek lotura zuzena du egilearen koherentziari eta mugei ematen dien arretarekin. Zuzendariak bezainbeste sortzen du filma errealtateak berak, eta, mugimendua eta argia film gisa kodetu ondoren, posible da berriz bizitza ematea eta aztertzea behin eta berriro etengabe erreproduzita.

Erakusketa osatzen duten bideoak eta argazkiek agerian jartzen dute zer-nolako sakontasunez behatzen dituen Lockhartek baliabide artistikoak, harrerako eta ekintza partekatuko bitarteko gisa: *Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioko lau ariketa* (*Four Exercises in Eshkol-Wachman Movement Notation*, 2011) instalazioan, Ruti Sela dantzariak—Eshkol kolaboratzailea eta haren Chamber Dance Group-eko kidea 1969tik berriki zendu zen arte— mugimendu neurtuak egiten ditu berdin-berdinak diren lau bolumen grisen artean. Bolumen horiek Lockhartek diseinatuak dira, dantzaria ariketa bakoitzean mugitu ahala haren gorputzak hartzen duen espazioaren erreferentzia gisa. Bolumenok ezberdin jarrita ageri dira dantzetako

GUGGENHEIM BILBAO

bakoitzean, eta haien neurriak bat datoz dantzariaren neurriekin. Bolumenen altuera dantzariak besoak altxatuta neurtzen duenaren berbera da, eta zabalera, berriz, bat dator haren beso-zabalerarekin. Ideia hori aintzatetsiz eta bereganatuz, Lockharten obrako ekintzen segida zainduak Eshkolek eta Avraham Wachmann arkitektoak 1958an garatu zuten notazio-sistema irudikatzen du. EWMN izeneko metodo zorrotz horrek aukera ematen du gorputz baten balizko mugimendu guztiak jasotzeko, eta gaur egun oraindik erabiltzen da koreografia-jarraibideak emateko, animalien mugimendua aztertzeko eta portaeraren alterazio batzuen diagnostikoa egiteko (esaterako, autismoa edo Asperger sindromea). Ditu- eta sinbolo-sorta hura garatzerakoan, Eshkolek eta Wachmannek eredu esferiko batzuk erabili zituzten; eredu haiei esker, giza gorputzeko artikulazioen eta gorputz-adarren errotazio posibleak jaso zitezkeen.

Film & Video aretoaren sarreran ikusgai dagoen *Erreferentzia-sistemako orbiten ereduak: Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioaren sistema (Models of Orbits in the System of Reference, Eshkol-Wachman Movement Notation System, 2011)* argazki-sailean ageri dira esfera horiek. Sare-begi metalikoz egindako zenbait forma koniko burdin hariz egindako egitura esferiko baten barruan daude, eta keinu batek espazioan egiten duen ibilbidea irudikatzen dute. Oraindik zinematografoa asmatu gabe zegoela Eadweard Muybridge-k mugimendudun gorputzen inguruan egin zituen estudioen kutsua darie Lockharten argazkiei: esfera birakari horiek eratzen dituzten forma erabat desberdinak irudikatzen dituzte, eta hori bideoko protagonistaren ekintzarekin lot daiteke, haren mugimenduek Eshkolen gidoietako zenbait sekuentzia gorputzen dituzten heinean.

Sharon Lockhart. Biografia

Sharon Lockhartek (1964, Norwood, AEB) Los Angeles du bizileku eta lantoki. Askotariko diziplinak uztartuta, hala nola instalazioa, argazkigintza, zinema, pintura zein eskultura, Lockhartek interakzio konplexu eta liluragarriak sortzen ditu. Interakzio horietan, gurutzatu egiten dira erabiltzen dituen bitartekoak eta formak, bidean topatzen dituen istorioak, eta lankide dituen komunitate eta pertsonak.

2017an, Lockhart Poloniaren ordezkaria izan zen Veneziako 57. Bienalean *Berrikuspen txikia (Little Review)* izeneko diziplina anitzeko proiektuarekin. Banakako erakusketei dagokienez, besteak beste areto hauetan egindakoak aipatu behar dira: Los Angeles County Museum of Art; Thyssen-Bornemisza Art Contemporary–Augarten, Viena; The Jewish Museum, New York; Contemporary Art Center, Vilnius, Lituania; San Francisco Museum of Modern Art; Fondazione Fotografia Modena, Italia; Museu Coleção Berardo, Lisboa, Portugal; eta Kunstmuseum Luzern, Suitza. Lockharten filmak New York Film Festival-en, Vienako Nazioarteko Zinemaldian, Marseillako FIDen, Berlingo Zinemaldian eta Sundance Film Festival-en aurkeztu dira. Artistak honako sariak jaso ditu, besteak beste: Herb Alpert saria, Pollock-Krasner Foundation-en beka, John Simon Guggenheim Memorial Foundation-en ikerketa-beka, Rockefeller Foundation-en ikerketa-beka, Berlingo D.A.A.D. Artist in Residence-ren ikerketa-beka, Mike Kelly Foundation Artist Project-en beka, eta Harvardeko Unibertsitatearen Radcliffe ikerketa-beka.

Erakusketa hau Guggenheim Bilbao Museorekin, Thyssen-Bornemisza Art Contemporary-ren (TBA21) eta The Wellbeing Project-en arteko elkarlanaren emaitza da.

GUGGENHEIM BILBAO

Film & Video aretoa (103)

Film & Video aretoa bideo-arteari, bideo-instalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako espazioa da, eta Guggenheim Museoen zein nazioarteko beste erakunde batzuen bildumetako obrak biltzen dira bertan. 2014an zabaldu zenetik, hainbat artista bereziren sorkuntza-lanak izan ditu ikusgai Film & Video aretoak, nola diren Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, Jesper Just, Jesse Jones eta William Kentridge.

Hezkuntza-jarduerak:

Artistekin solasean: Sharon Lockhart (azaroak 4)

Manuel Cirauquik, Museoko Film & Video erakusketa-programaren arduradunak, Sharon Lockhartekin hitz egingo du *Errotazioa notazioa* erakusketaren inaugurazioaren kariatara. Solaskideek testuinguruan kokatuko dute artistak Noa Eshkol koreografoaren lanari buruz elkarlanean egindako ikerketa, baita giza mugimenduaren, abstrakzioaren eta zinemaren inguruan duen planteamendu kontzeptuala ere.

Azaleko irudia

Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioko lau ariketa, 2011

Kanal bakarreko bideo-instalazioa (koloretan, soinurik gabea)

16 min 3 s, etengabeko begizta

Honakoaren laguntzaz ekoitzia: Outset Contemporary Art Fund, The Philip and Muriel Berman Foundation, Ostrovsky Family Fund eta Art Partners

Bilduma: Thyssen-Bornemisza Art Contemporary

© Sharon Lockhart, 2011

Eskaintza: artista, neugerriemschneider, Berlin, eta Gladstone Gallery, New York eta Brusela

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsa irudiak:

Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioko lau ariketa, 2011

Kanal bakarreko bideo-instalazioa (koloretan, soinurik gabea)

16 min 3 s, etengabeko begizta

Honakoaren laguntzaz ekoitzia: Outset Contemporary Art Fund, The

Philip and Muriel Berman Foundation, Ostrovsky Family Fund eta Art Partners

Bilduma: Thyssen-Bornemisza Art Contemporary

© Sharon Lockhart, 2011

Eskaintza: artista, neugerriemschneider, Berlin, eta Gladstone Gallery, New York eta Brusela



Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioko lau ariketa, 2011

Kanal bakarreko bideo-instalazioa (koloretan, soinurik gabea)

16 min 3 s, etengabeko begizta

Honakoaren laguntzaz ekoitzia: Outset Contemporary Art Fund, The Philip

and Muriel Berman Foundation, Ostrovsky Family Fund eta Art Partners

Bilduma: Thyssen-Bornemisza Art Contemporary

© Sharon Lockhart, 2011

Eskaintza: artista, neugerriemschneider, Berlin, eta Gladstone Gallery, New York eta Brusela



Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Erreferentzia-sistemako orbiten ereduak, Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioaren sistema: hirugarren esfera bere errotazioko bost unetan (xehetasuna), 2011

Koloretako bost kopia, markoztatuak

50 x 39,7 cm

© Sharon Lockhart, 2011

Eskaintza: artista, neugerriemschneider, Berlin, eta Gladstone Gallery, New York eta Brusela



GUGGENHEIM BILBAO

Sharon Lockhart. Errotazioa notazioa

Erreferentzia-sistemako orbiten ereduak, Eshkol-Wachman Mugimendu-notazioaren sistema: hirugarren esfera bere errotazioko bost unetan (xehetasuna), 2011

Koloretako bost kopia, markoztatuak

50 x 39,7 cm

© Sharon Lockhart, 2011

Eskaintza: artista, neugerriemschneider, Berlin, eta Gladstone Gallery, New York eta Brusela

